



FEDERACION VIZCAINA DE MONTAÑA
BIZKAIKO MENDIZALE FEDERAZIOA
MARTIN BARUA PICAZA nº 27, 4ª PTA 48003 BILBAO
Tfno.: 94 443 17 34 Fax: 94 444 35 62
www.bmf-fvm.org
<https://www.facebook.com/Bmf-Fvm/597553177057267>

AkTA

BIZKAIKO MENDIZALE FEDERAZIOKO BATZAR OROKOR ARRUNTA ASAMBLEA GENERAL ORDINARIA DE BMF

Bilbon, 2017ko martxoaren 16an, 19:30etan bigarren deialdian, Bizkaiko Mendizale Federazioko Ohiko Batzar Orokorra eratu da.

Batzarreko presidente bezala, Federazioko presidente den Victor Vivar aritu zen, Idazkari bezala, Federazioko Idazkaria den Ainara Aparicio eta bertan izan ziren baita ere Zuzendaritza Batzordeko kideak diren Ricardo Hernani, Dioni Perez, Ana Semusaga eta Blanca Irene Gonzalez.

BERTARATUTAKOAK:

AKREDITAZIO EDO ORDEZKARITZA ZUZENA DUTEN KLUBAK:

Gallarreta, Baskonia M.T, Gallarraga, Ganguren M.T, Ganzabal M.T, Goiko Mendi, Osea, Turista Barakaldo, Ganerantz M.T, Encartaciones, Goi Gain M.T, Deportivo Bilbao, Egunsentia, Gailurra M.T, Lezama Gailurra, Sollube 707 Bermeo M.T, Cicloturistas de Euskadi C. La Rioja, Beraskola M.T, Bidelagun M.K.E, Lamino Kirol Kluba, Austarri M.T, Zaldai M.T, Untza M.T, Aldatz Gora, Alpino Tabira M.T, Ubietamendi, Etorkizuna M.T, eta Juventus.

LEGEGINTZALDI HONETARAKO, BMFko HAUTESKUNDE BATZORDEAK ESKATUTAKO ORDEZKARITZA OROKORRA AURKEZTU EZ DUTEN KLUBAK, BAINA PUNTUALKI BATZAR HONETARAKO ORDEZKATUAK IZAN DIRENAK:

Burtotza M.T.

KIROLAK:

Domingo Garcia Valerio, Victor Manuel Vivar, Txaro Iglesias Lareo, Ricardo Hernani, Joseba Undarraga eta Ainara Aparicio.

TEKNIKOAK:

Koldobika Vadillo eta Ander Gomez.

BATZARRAREN ERAKETA:

Victorrek, Bizkaiko Mendizale Federazioko presidente bezala, ongietorria ematen die bertaratutakoei eta bertaratu izana eskertzen die. Idazkariak Batzarrera bertaratutakoen berri ematen du; bozka eskubidedunak 27 klub (63 boto), kirolarien 6 ordezkari (6 boto), teknikoen bi ordezkari (2 boto). Guztira 35 ordezkari eta 71 boto.

Idazkariak Jose Ramon Alonsok Bizkaiko Mendizale Federazioko Zuzendaritza Batzordeko kide izateari utzi diola jakinarazten die bertaratutakoei. Jose Ramon Alonso Euskal Mendizale Federazioko presidentea izendatua izan da eta hori dela eta Bizkaiko Zuzendaritza Batzordean bere dimisioa aurkeztu zuen. Bizkaiko federazioko Zuzendaritza Batzordera kide berri bat sartzeko gestioetan ari direla adierazi zuen Idazkariak.

Aurreko datuei erreparatuz, Presidenteak Batzarra era egokian eratzat ematen du, Federazioko estatutueta 20. Artikuluari jarraituz.

Batzar Orokor hau, Bizkaiko Mendizale Federazioaren Presidenteak deitua izan da, BMFko estatutueta 18. Artikuluak adierazten dituen epearen barruan, eta bertan jorratuko diren gaiak, deialdiko gai zerrendan sartuz. Argi uzten dute Batzar honen lehendabiziko helburua 2016 ekitaldiko itxiera kontablea eta 2017ko aurrekontuak onartzea izango dela.

BMFko aurreko Batzar Orokorretan erabilitako eskema jarraituz, ordezkari ofizialen laguntzaile bezala etorri diren pertsoneri bilerako sarrera baimendu zaie (klub bakoitzetik laguntzaile bat), baina ez dute boto eskubiderik izango.

BMFko Estatutuen 19. Artikuluak ahalbidetzen duen bezala, Gai ezberdinak sartzeko eskaerarik egon ez denez, deialdian batutako Gai Zerrenda garatzen da.

GAI ZERRENDAKO LEHNDABIZIKO PUNTUA: 2016KO ABENDUAREN AKTA ETA 2016KO EKAINAREN 23KO AKTAREN ERANSKINAREN IRAKURKETA ETA ONARPENA HORRELA IKUSTEN BADA.

Akta hauen edukia deialdiarekin batera Batzarreko kide guztiei bidalia izan dela jakinarazten da. Hori dela eta, hauen irakurtzea ez burutzea erabakitzen da eta hauen onarpenerako bozketara pasatzen da, beti ere horrela adosten bada.

Lehendabizi Abenduko akta bozkatzeko da eta aho batez onartzen dute bertaratutakoek. Jarraian eranskinaren bozketa burutzen da eta hau ere aho batez onartzen dute bertaratutakoek.

BIGARREN PUNTUA : KLUB BERRI BATEN ALTAREN BERRI EMATEA: C.D. RUNNER MICE.

Zallako Runner Mice taldeko bi kidek BMFren parte izateko dituzten arazoak azaltzen dituzte. Talde honen ekintza nagusia mendiko running-a da. Azalpenaren ondoren, beraien inguruko klub batek, klub berri hori sortzearen zergatiagatik galdetu diete, posible izango zela hasieratik beraiengana hurbildu eta klub berean aritzea, bi klub ezberdin sortu beharrean. Klub berrikoen iritziz, hauek helburu eta ekintza ezberdinak egiten dituzte.

Federazioko presidenteak, klub baten betebeharreri buruz informatzen die klub berri honen ordezkariari: federazio lizentzien kopuru minimoa, ekintzak burutzea eta BMFko parte-hartze aktiboa.

HIRUGARREN PUNTUA :2016 EKITALDIKO ITXIERA KONTABLEA.

Jarraian Txomin Garcia Valero diruzain ohiak hartzen du hitza. Honek diapositiben bitartez, Zuendaritza Batzordeak onartutako 2016 ekitaldiko itxieraren datu ekonomikoak azaltzen ditu. Pasa den urtean adostutako aurrekontuarekin alderaketa bat egiten du, egondako aldaketak zehatz mehatz azalduz eta beraien justifikazio kontzeptuala emanez, azken ekitaldiko zenbait magnituderen eboluzioa azalduz eta erabilpen zehazdun konpromisoa duten ekintzetara zuzenduriko zenbatekoen eraketa edota mantentzea adieraziz.

LAUGARREN PUNTUA : 2017RAKO AURREKONTUA.

Dioni Perez, egungo diruzainak, itxiera kontablearen antzeko modelo bat proposatzen du 2017ko aurrekontuak azaltzeko. Kontzeptu eta atal adierazgarrienerako magnitudeen azalpen bat egiten du.

Gorbeako Aterpeari buruzko aurrekontuari buruz hitz egietarakoan, Helvetiarekin kontratatuta dagoen aseguruari bajaran emango zaiela adierazten zaie batzarkideei. Aseguruaren kostua zaindaria ordainduko du eta ez du BMFak bere gain hartuko, bere momentuan adostu zuten bezala.

Azalpenak emanda, ez da inolako zalantzarik agertu eta ez da inolako azalpenik eskatu bertaratutakoek aldetik beraz lehendabizi itxiera kontablearen bozketa burutzen da eta ondoren aurrekontuen bozketa. Bozketa biak aho batez onartzen dira.

BOSGARREN POSTUA : BIZKAIKO GOI-MENDI ESKOLA ESKOLA (BGME)

Ricardok BGMEren antolakuntza egoeraren eta bere funtzionamenduari buruz egindako analisiaren berri eman du. Egungo Zuzendaritzak ikastaroei publizitate gehiago ematen ahaleginduko da, kluberi prezioak

estutzen eta klub beharrezkoen arabera eskaintzak zabaltzen ahaleginduko da, beraien errendimendua hobetu ahal izateko.

Halaber, Zuzendaritza Batzorde honek BGMEren eremu ezberdinak hobetzeko arautegi proposamen bat bidaliko dio EMFri. Proposamen horien artean, monitoreen titulazioak hemendik gutxira legeak eskatuko duen betekizunetara moldatzea. Honi loturik, denbora gutxi barru eskola kiroleko monitore/tekniko izateko lan poltsara tekniko berriak sartzeko deialdia egingo dela jakinarazten da.

SEIGARREN PUNTUA: 2017AN BURUTUKO DIREN EKINTZEI BURUZKO ZUZENDARITZA BATZORDEAREN TXOSTENA.

- a) **Postontzien Katalogo Proiektua.** Bizkaiko eremu ezberdinetan egindako bileretan 49 klubek parte hartu dutela jakinarazi du Victorrek. Aste pare batean arduradunak bidaliko diguten informazioa sartzeko joango den aplikazioa martxan jarriko dela ere adierazi zuen.
- b) **Gailurretan buzoiak instalatzeari buruzko arautegia.** Arautegi horren edukia batzarreko kide guztiei bidalia izan dela jakinarazten da. Arrazoi praktikoengandik, ez irakurtzea planteatzen da, eta irakurritzat ematen dira. Arau iragankorra dela jakinarazten da eta Aldundiaren aurrean gauzatu beharko dela bere edukia EMFak onartzen duenean. Bozketa egin aurretik batzarkideei ekarpenen bat baduten galdetzen zaie.
Batzarreko kide baten ustez, arautegia elementu adierazgaile guztien gain aplikatu beharko litzateke (buzoiak, plakak...). Xehetasun honi buruz hitz egin ostean bozketa egiten da. BMFko klubek jarraitu beharreko arautegia onartua geratzen da, hiru abstentziorekin.
- c) **Mendi bideen boluntarioritza proiektua .** Maiatzaren 27an BMFko instalazioetan boluntarioen partetik mendi bideen seinaleztapen hitzaldi tailer bat ospatuko dela jakinarazten du. Horretarako klub guztiei Bizkaiko Kostaldeko GR123 seinaleztapen horizontalak urtean bi aldiz errebisatuko dituzten boluntarioak eskatzen informazioa bidali zaie. Lan horretarako beharrezko materiala Bizkaiko Foru Aldundiak diruz lagundua izan da, Klubei informazio hau bere bazkideen artean zabaltzea eskatzen zaie, parte-hartze handiago bat izateko.
- d) **Xenda-zaletasun jardunaldiak.** Datorren Urriaren 21 eta 22rako Atxondo inguruan xenda-zaletasun jardunaldiak prestatzen ari direla jakinarazten da. Larunbaterako, ponentziak, ekintzak... antolatu dira eta igandean Anboto ingurutik txango ezberdinak egin ahal dira, janari herrikoi batekin bukatzeko... Dena prest dagoenean klub guztiei honi buruzko informazioa bidaliko zaie.
- e) **Ibilki Proiektuarekin elkarlanean.** Ricardok, Ibilki proiektuari 3000€ko diru laguntza emango zaiola jakinarazten da. Ibilki proiektua ikusmen desgaitasuna duten pertsonen dago zuzendua. Mundu mailan ikusmen desgaitasuna duten pertsonen zuzendutako mundu mailako lehendabiziko espedizioa egingo da, Galdhopiggen mendira igotzea saiatuko direlarik (Norvegiako gailurrik garaiena).

ZAZPIGARREN PUNTUA : ONARTUTAKO HITZARMENEI BURUZKO INFORMAZIOA.

Ordutegi arazoengatik eta batzar osoan zehar hitzarmen horiei buruz hitz egin dugunez, aurrekontuetan, BGME, mendi-bideak batzarreko hurrengo puntura pasatzen da. Denak ados egonez batzarreko azken puntura pasatzea erabakitzen da.

ZORTZIGARREN PUNTUA : ERREGUAK ETA GALDERAK.

Bertaratutako galderaren bate do beste zerbait planteatu nahi duten galdetzen zaiei. Galderarik ez dagoenez eta beste gairik ez dagoenez, laster EMFko Ohiko eta Ez Ohiko Batzar Orokorrak ospatuko direla jakinarazten zaie, eta beste zenbaitetan gertatu den bezala, aurreko ostegunean batzarreko gai zerrenda

komentatzeko elkartuko gara. Hau esanda presidenteak bukatutzat ematen du Batzarra, bertaratutakoei bertaratzea eskertuz.



Izptua.: Ainara Aparicio
idazkaria BMF



Izptua.: Víctor Vivar
Presidente BMF